




EUSKAL BIZIKLETA



Hamabost talde eta 120 txirrindulari ariko dira lehian gaur hasi eta igandean bukatuko den Euskal Bizikletan. Partaidetza bikaina izango du proba honek, Arrateko

Igoeraren 50. urteurrenean. Eric Breukink, Gianni Bugno, Franco Chioccioli, Piotr Ugrumov, Pedro Delgado, Alex Zulle, Marco Giovanetti, Fede Etxabe eta Laudelino

Cubino dira, besteak beste, parte hartuko duten gizonak. Giroa korritu dutenek proba irabazteko aukera dextente izango dituzte, sasoi betean ailegatuko baitira.

Partaidetza bikaina edizio berezian

Giroan parte hartu duten txirrindulariak dira aurtengo Euskal Bizikleta irabazteko faborito nagusiak

PELLO AIESTARAN / DONOSTIA

Bost egunetan zehar, nazioarteko tropeleko gizonik aipagarrienetariko batzuk borrokan ariko dira Euskal Herriko errepedetan zehar, Euskal Bizikleta irabazi asmoz. Guztira 883 kilometro eta 18 mendate ditu proba honek, eta adituen arabera azken edizioetako ibilbiderik gogorretakoa da.

Zalantzarik gabe, azken egunetan (igandea) Arraten amaitzen den etapak erabakiko du Euskal Bizikletaren garailea zein izango den. Aurreneko egunetan borroka izango da, eta faborito batek baino gehiagok agur esango dio txapela lortzeko aukerari. Baina gizon indartsuen artean aldeak txikiak izango dira, eta azken igoera horretara arte ez da ezer erabakita izango. Iaz, Franco Chioccioli italiarra jaun eta jabe izan zen karrera osoan zehar. Lehenengo egunetik erasora jo zuen, eta arazotan jarri zuen faborito bat baino gehiago. Azkenean ordea, Arraten irabazi beharra izan zuen bere garaipena ziurtatzeko. Gianni Bugnok ere hor irabazi zuen 1991ko edizioan, Arrateko gainera Miguel Indurainekin batera heldu zenean. Azken etapa horretan zazpi mendate izango dira guztira (Kanpanzar, Areitio, Elgeta, Ixua, San Migel, Usartza eta Arrate). Gauzak argitzeko moduko ibilbidea, zalantzarik gabeko.

GIROTIK ETORRITAKOAK FAVORITO Proba irabazteko faboritoak aipatzekoan, beti izen berak agertzen dira. Eric Breukink, Zulle, Bugno, Chioccioli, Ugrumov, Delgado... Baina ezer arrarorik gertatu ezean, Giroan parte hartu duten gizonak dute garaipena lortzeko aukera gehien. Italian hiru asteko karrera gogorra korritu dute, munduko gizonik indartsuenen kontra lehian, eta sasoi-sasoi azalduko dira Eibarko irteeran.

Piotr Ugrumov letoniarrak dirudi indartsuena, Milanen Miguel Indurainen atzetik bigarren



Gianni Bugno eta Franco Chioccioli italiarrak, Euskal Bizikletako garaileak azken bi urteetan.



tokian sailkatu ondoren. Bugnok eta Chiocciolik ordea, beren etxean eginiko lan kaskarra ahaztu egin nahiko dute. Beraiek dira azken bi edizioetako irabazleak, eta aurten ere garaipena lortu nahi izango dute. Gainera, GB-MG taldeko liderraren kasuan, badu Euskal Bizikletan maila ona erakusteko arrazoi nahikorik. Tourrean parte hartzeko aukera izango du jokoan. Bere taldeak lortu du munduko probarik onenean izateko txartela, baina Franco Chiocciolik oraindik ez du ezer erabaki. Euskal Bizikletan lan ona egiten badu, Tourrean izango da; bestela uko egingo dio.

Delgado, Breukink edo Zulle bezalako gizonak ondo aritu izan dira azken asteetan, lauzpabost eguneko probetan. Euskal Bizikleta honetan ordea, zaila izango dute garaipena lortzea.

Arrateko Igoerak 50. urteurrena betetzen du aurten, eta edizio berezi honetarako partaidetza ezin hobea bildu dute antolatzaileek, ezberriak gabe.

PALMARESA

Eibarko Bizikleta

Urtea	Irabazlea
1952	Louis Caput
1953	Vicente Iturat
1954	Jose Serra
1955	Jose Escolano
1956	Jesus Loroño
1957	Antton Barrutia
1958	Jesus Loroño
1959	Antonio Beltran
1960	Benigno Aizpuru
1961	Antonio Karmay
1962	Rolf Wolfshohl
1963	Juan Jose Sagarduy
1964	Carlos Etxeberria
1965	Sebastian Elorza
1966	Eusebio Velez
1967	Carlos Etxeberria
1968	Josemari Errandonea
1969	Jacques Anquetil
1970	L.P. Santamaria
1971	Luis Ocaña
1972	J.A. Gonzalez
1987	Marino Lejarreta
1988	Jokin Mujika
1989	Fede Etxabe
1990	Thierry Claveyrolat

Euskal Bizikleta

Urtea	Irabazlea
1991	Gianni Bugno
1992	Franco Chioccioli

Euskal ordezkariak aukera gutxi

P. A. / DONOSTIA

Zoritxarrez, Euskal bizikletan garaipena lortzeko aukera gutxi izango dute aurten bertoko ordezkariak. Cabestany, Etxabe, Gaston, Leanizbarrutia eta Uzaga dira edizio honetan parte hartuko duten euskal ordezkariak aipagarrienak, zeresanik eman dezaketen beste gizon batzuk ahaztu gabe, noski. Baina Bugno, Chioccioli, Ugrumov, Breukink eta Zulle bezalako gizon izugarrien kontra borrokatzea ia ezinezkoa dirudi.

Marino Lejarreta (1987), Jokin Mujika (1988) eta Fede Etxabe (1989) dira garaipena lortu duten azken euskal ordezkariak, probaren izena oraindik ere Ei-


barko Bizikleta zenean. Orduetik hona berriz, atzeritik etorritako gizonak izan dira nagusi, eta ez dirudi gaur hasiko den edizioan hori aldatuko denik.

Gauzak horrela, etapa garaipenak lortzea izango da hemengo txirrindularien helburu nagusia. Esprintetan Asier Guenetxea eta Gonzalez Salvadorrek zeresanik izango dute. Mendian ondo moldatzen diren gizonak ere badaude, eta ihesaldiren batean ezustea eman dezakete.

Gazteak nola aritzen diren ikusteko aukera izango da. Aiarzaguena, Irusta, Garmendia, Guenetxea bera... etorkizun handiko gizonak dira, eta Euskal Bizikletan onenen aurka indarrak neurtu ahal izango dituzte.

Euskal Bizikleta

Sari Nagusia



kutxa